

HiztegiBar Chrome Eskuliburua



Eleka Ingeniaritza Linguistikoa
Zelai Haundi, 3
Osinalde Industrialdea
20170 Usurbil
Tel.943 363040
Faxa.943 363144
www.eleka.net / info@eleka.net

HiztegiBar


Eskakizunak eta oharrak.....	3
Instalazioa.....	3
Erabilera.....	4
Bilatzailea.....	4
Hobespenak.....	5
Orokorra.....	5
Hiztegien aukera.....	5
Kontsulta Aurreratua.....	6
Hiztegiak.....	6
Estatistikak.....	6
Desinstalatzea.....	6


Eskakizunak eta oharrak

HiztegiBar Chromek ez du eskakizun berezirik, nahikoa da Google Chrome nabigatzailea instalatua edukitzea.

Instalazioa

Hona hemen instalazioa burutzeko egin beharreko urratsak:

1. HiztegiBar.zip artxiboa deskonprimitu, eta zure ordenagailuan gorde.
2. Google Chrome ireki.
3. Luzapenen web-orria kargatu. Hori egiteko, bi aukera daude:
 - a) Chromeko ikonoan  klik egin (goian, eskuinean), eta aukeratu **Tools > Extensions** (Tresnak > Luzapenak).
 - b) Chromeko helbide barran **chrome://extensions** idatzi.
4. Amaitzeko, arrastatu deskargatutako .crx fitxategia Extensioen orrira, baimendu instalazioa eta listo.

Luzapena ondo badago, panelaren eskuineko aldean agertuko da HiztegiBarren  ikonoa . Gainean klikatuz gero, menua irekiko da.

Erabilera

Bilatzailea

HiztegiBar erabiltzeko lehen urratsa hizkuntza bikotea aukeratzea da. Horretarako, klikatu hizkuntzen zerrendan, eta aukeratu zein hizkuntzatik zein hizkuntzara itzuli nahi duzun:



Oharra: kontuan izan hiztegi bakoitzak hizkuntza-bikote jakin batzuetan funtzionatzen duela bakarrik.

Ondoren, sar ezazu itzuli beharreko hitza HiztegiBarreko testu-kutxan.

Emitza ikusteko bi era daude:

- HiztegiBarreko hiztegien botoietan klik eginez.
- Kurtsorea testu-kutxan dagoenean Enter tekla sakatuz. **Hobespenak > Kontsulta aurreratua** fitxan markatutako hiztegi guztiak batera kontsultatuko dira bakoitza bere fitxan erakutsiko da.

Oharra: Euskarazko hitz bat bilatzerakoan, lematizazioa egiten da. Hau da, nahiz eta euriarekin hitza begiratu, hiztegietan euri kontsultatuko da.

Hobespenak

Orokorra

Orokorra fitxan, programaren propietateak alda daitezke.

Hizkuntza

- Interfazearen hizkuntza: interfazea zein hizkuntzatan erakutsiko den definitzen du, euskaraz edo gaztelaniaz.
- Hizkuntza-bikotea: defektuz aukeratutako hizkuntza bikotea. Ondoko hauek izan daitezke: EU►ES, ES►EU, EU►FR, FR►EU, EU►EN, EN►EU, LA►EU, EU►JA, EU►DE edo DE►EU

Fitxen hobespenak: Fitxen konfigurazioa ezartzeko aukerak.

- Fitxak berrerabiltzeko aukera.
- Fitxak atzeko planoan irekitzeko aukera

Hiztegien aukera

HiztegiBarren kontsultarako erakutsi nahi diren hiztegiak azaltzen dira. Zerrenda horretan hautatuta dauden hiztegien botoiak bistaratuko dira.

Kontsulta Aurreratua

Atal horretan, bilaketa egin eta Enter tekla zapaltzerakoan zein(tzuk) hiztegi kontsultatuko d(ir)en ezarriko dugu. Hiztegi bakoitza fitxa batean erakutsiko da.

Hiztegiak


Jasotako hiztegien zerrenda osoa agertzen da. Zerrenda horretako hiztegiak kontsulta daitezke zerrendako elementu edota estekaren baten gainean klik bat eginez; dagokion orri nagusia irekiko da.

Estatistikak

Atal honek hiztegi bakoitzean egindako kontsulta kopurua erakusten du.

Desinstalatzea

Bi erataria desinstala daiteke:

- a) HiztegiBar desinstalatzeko, Chromeko  ikonoan klik egin, eta aukeratu **Tools > Extensions** (Tresnak > Luzapenak).
- b) HiztegiBar gehigarriari dagokion atalera joan, eskuineko botoia sakatu, eta desinstalatzeko aukera sakatu (Uninstall). Horrela, HiztegiBar gure sistematik kenduko dugu.